



**2020ko maiatzaren 17a**

## **LGTBIQfobiaren aurkako Nazioarteko Eguna**

Kaixo familia!

Datorren maiatzaren 17a LGTBIQfobiaren aurkako Nazioarteko Eguna da. Azken urte hauetan Pello Errota Ikastetxeak bat egin izan du egun berezi honekin eta aurreko gure artean dabiren birus txoro horrek urteroko **ORTZADARRAREN EGUNA** ospatzea ez digu galaraziko.

Bizi dugun egoera tamalgarri honek behar gehien dituztenei egiten die minik handiena, bazterketa soziala jasaten duenei, aske izan nahi duten horiei.

Albistek eta erakundeek horrelaxe diote: "LGTBIQ+ kolektiboak konfinamendu bikoitza jasan dugu aste guzti hauetan, egunak joan eta egunak etorri: etxea ez da izan toki segurua kolektiboa osatzen duten pertsona askorentzat eta, zoritxarrez, azken asteetan medioetan ikusi dugun bezala, askorentzat ezta kalea ere. Itxialdi honek normatiboak ez diren izaera asko ezkutatu ditu berriro, armairura eraman ditu bueltan, heteronormatibitate zuri zurrunenak zintzo eskatzen duen bezala." *(Eilas)*

Gure aldetik egun hau kolore ezberdinetako askatasun eguna izendatu dugu. Aniztasunaren aldarrikapen eguna. "Ikastetxe guztietan sexu aniztasunari buruz hausnartzeko eta gure hezkuntza komunitatean prebentzio neurriak garatzeko, pertsona bakoitzak bere sexu eta genero identitatea errespetatzeko duen askatasunaren aurka egiten duen iritziz, jarrera edo jokabide lesbofobiko, homofobiko, transfobiko edo bifobikoren aurrean." *(Hezkuntza Saila)*

Hezkidetzaren Batzordetik egun berezi hau zuen familia eta seme-alabekin ospatzeko gonbitea luzatu nahi dizuegu. Horretarako ederra litzateke igande honetan eta datorren astean zehar Asteasuko **balkoiak ortzadarraren koloreekin** atontzea, eskumuturrak pultserekin apaintzea, marrazkiak egin eta eskaratzak apaintzea, etxeko solasaldietan gaia ateratzea, hausnarketarako eguna izatea,

Besterik gabe, goza ezazue askatasun osoz egun hau.

Aske maite aske bizi!

